



Fitxa teknikoa

Arturo eta Klementina. Adela Turin / Nella Bosnia. Pamiela – Kalandraka, 2013

Liburuaren aurkezpena

Emakume eta gizonen artean suertatzen diren menpekotasun egoera batzuk aurkezten zaizkigu liburu honetan. Giza tradizioak arrei eskaini dien lekua garbi agertzen da ipuin honen bikote-harremanean, eta arraren rola ezberdinekin gabe emearenari gailentzen zaio. Maitasunaren eta babesaren izenean estaltzen dira emearen deuseztapena, menpekotasuna, eta askotan destaina eta irain krudelak. Emeak bere erabakiak hartzen dituen arte, bere buruaren jabe egiten den bitartean...

Nola kontatu

- Ahoz kontatu istorioa, ilustrazioak erakutsi bitartean. Ilustrazioen umoreaz baliatu bikotearen ulermen falta azpimarratzeko.
- Alderatu Arturo eta Klementinaren nahiak eta desioak eta istorioak duen soluzioa.

Proposamenak bideratzen

- Arturoren ekimenak aztertu. Guztiz onak al dira?
- Maitasuna ematen dio Arturok Klementinari?
- Klementinarengatik egiten zuen guzti hori?
- Zer sentitzen zuen Klementinak?
- Bere nahiak betetzen ziren?
- Bere kabuz dibertitu nahi zuen Klementinak?
-

Proposamenak zehazten

- Arturo eta Klementina banandu egin ziren; Klementinak bere buruaren jabe egin nahi zuen eta Arturok bere buruarekin gaizki sentitu arazten zion.
- Pentsa dezagun beste bukaera bat emango diogula ipuinari.
- Arturo eta Klementinari lagundu egingo diegu haien egoera konpontzen.
- Zer aldatu beharko luke Arturok hori gertatzeko?
- Zer esplikatu beharko luke Klementinak pozik bizitzeko?